

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

## Teknologia berriak eta zakurraren putza

**N**

azka, lepo, kokoteraino eginda nago, ez teknologia berriekin baizik eta zenbaitek haien inguruan egiten duten erabilerarekin. Nago ez ote duten berriz ere beren burua zurrizteko baino egiten. Zenbat ekitaldi, jardunaldi, lantegi, topaketa, foro eta abar antolatzen da epigrafe horren babesean? Eta zenbat diru zahutzen da horrelakoe-tan? Zenbat aditu, jakintsu, sasi-oro-jaki-tun bizi da horren kontura, denon kontura? Eta zertarako? Ez al da gehienetan gauza bera errepikatzen? Eta hitz magi-koa: digitalizazioa. Dena da gaur egun digitalizazioaren ingurukoa, haren beharra, balore estrategikoa, ezinbestekotasuna. Garai bateko homologazioaren pareko dela ikusten dut.

Eta esan dudana: zertarako? Hainbat erakundek zerbait egiten dutela justifikatzeko? Hemen ere garai berriekin bat goazela erakusteko? Hainbat departamendutako jendearen soldatak justifikatzeko? Azalergia hutsak. Eta non dago mamia? Zerez beteko ditugu tresna berri horiek guztiak? Nor arduratzen da teknologia berri horiek eduki berriz betetzeaz? Gutxi-gutxi batzuk kenduta inortxo ere ez. Behin eta berriro entzuten dugu gure arloaz, ikus-entzunezkoen arloan, euskarri berriak hartu behar direla kontutan. Kontsumo ohiturak aldatzen doazela. Eta historiak ez direla hemen-



INES URRUTIA



Jakin nahiko nuke zenbat jende bizi den ikus-entzunezko arloan sortzetik eta ekoiztetik eta zenbat diren, barkatu baina, parasito




dik aurrera euskarri tradizionalerako pentsatu behar. Etorkizuna sarean dagoela, mugikorretan, teknologia berrietan alegia. Eta bitartean gu sarean harrapatuta sentitzen gara. Ezen eta nondik etorriko da historia horiek finantzatzeko dirua? Jomugan horixe daukagu baina finantzabide berriez ez da ezertxo ere aipatzen. Erabili, zabaldu, baina nork ordaindu? Bezeroek? Eta nola egiten da hori? Doakotasunaren aldekoak baikara gainera.

Ze, diru gutxi gastatzen dugu gozokian eta zenbat zelifanean. Baina paketea ederra bada ere, guk gozokia jan nahi dugu, zelifana irenstezina baita. Elikagaia barruan dago. “Nola” oso inportantea da, noski, baina inportanteena “zer” da. Estatistika asko egiten da, baina baten baten falta somatzen dut. Imajinatzen dut hau arlo guztietara aplikatu zitekeela. Baina gurean oso nabarmena da, zantzuak baino ez badira, datuen faltan. Jakin nahiko nuke zenbat jende bizi den ikus-entzunezko arloan sortzetik eta ekoiztetik eta zenbat diren, barkatu baina, parasito. Hau da, besteek egin dutenaren kontura bizi direnak. Funtzionari, antolatzailerik, aditu, aholkulari, jakintsu, abokatu, ekonomista, kritikoa, zinemaldi, topaketa, jardunaldi... Beharrezkoak izango dira baina hainbeste bai? Zenbat diru eskaintzen zaio sorkuntza eta ekoizpenari eta zenbat parafernaliari? ■

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ziruditen Baionarantz zetozenak, AHTren proiektuari aurre eginez, joan zen larunbatean erreketako urak bailiran Lapurdiko hirira egin zutelarik. Marka askotarikoak, ez zuten gutxi luzitu hamabost bat milako jendeen bibakak jasoz, pasareletako modeloena eginez manifestaldiaren burua hartzeko aitzina hartuz bidea irekitzera abiatu zirelarik. Autobuska joan ginen bertara, orain arte inoiz gurutzatu ez dugun herrikide andana lagun. AHTk ez du begirik, itsua da, eta bere bidean –gutuziazko begibakarra zenbaitetan– harrapatzen duen guztia errekarara eramaten du. Eta

### Traktore-bideak

guzti horretantxe bilduarazi gaitu harrapatuak, errekarara egingo gaituenak. Boz-emailez gain, hautetsiak ere aurretik eramanak sentitu dira eta behingoz gurekin bat egin dute hortzak erakusten, orain arte gu gurutzatzen mingaina airera dantzatzen zutenak. Azkar sentitu gara, boteredun. Eta batera, Aquitaine-Euskadi elkarteak merkantzia komertzialentzat trenbideko estrategia aurkeztu du, AHT burutzeko zerabilten argudio azkarrena alboratuz, gurea baieztatuz. Gezurra zela, ez genuela horren beharra, hori gabe bestelako soluziorik bazela. Traktoreek eta autobusek ikasi dute bidea, AHTk ez. ■